

EKIALDEKO 6 HERRIALDETA KO ORDEZKARIEK EUDEL BISITATU DUTE. EUROPAKO KONTSEILUKO KIDEEN LAGUNTZAZ

- Honako 6 herrialdeetako ministerio eta gobernu-sail etako 20 ordezkari etorri dira: Armenia, Azerbaijan, Bielorrusia, Georgia, Moldavia eta Ukraina.
- Bisitaldi horretan, EAEko eredu ekonomiko finantzarioaren berezitasunak ezagutu dituzte, baita Euskadiko udaletako kudeaketan daukan ezarpena ere.
- Gaur, nazioarteko lan-mintegia egingo da EUDELen, ordezkari tza horretako kideen eta Galdakao, Getxo, Ermua, Basauri eta Bilboko udaletako ordezkarien artean.

Bilbon, 2015eko urriaren 28an. Guztira, Europako Ekialdeko 6 herrialdeetako gobernuetako 20 ordezkari k parte hartu dute EUDELe k eta Europako Kontseiluak antolatutako topaketan, Euskadiko eredu ekonomikoaren berezitasunen eta Euskadiko udaletako kudeaketa finantzarioan zein aurrekontuetan daukan ezarpenaren berri emateko. Ordezkari tza horretako kideak honako arlo hauekin lotuta dauden ministerio eta sail etako ordezkari politikoak dira: ogasuna eta finantzak, kudeaketa ekonomikoa eta aurrekontuak, eta tokiko gobernantzaren garapena.

Gaur, **EUDELe ko zuzendariak, Mar Zabalak**, eta Batzorde Eragileko ordezkariak, **Ibon Uribe Galdakaoko alkateak**, ongi etorria eman diete Europako ordezkari ei. Bihar, urriaren 29an, osteguna, 11:30etik aurrera, Galdakaoko alkateak 20 gobernu-ordezkari horiei ere egingo die harrera bere udaletxean, eta, bere udal-taldearekin batera, Galdakaoko Udalaren esperientzia aurkeztuko die zuzen-zuzenean.

Ekialdeko herrialdeetako ordezkarien bisitaldia EUDELe k eta Europako Kontseiluak bultzatutako **“Local Finance Benchmarking” (LFB)** proiektu pilotuaren barruan dago kokatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiak ere parte hartzen du bertan. Proiektuak adierazleen tresna diseinatzea dauka helburu, Euskadiko udaletako kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren ebaluazioa eta jarraipena egin ahal izateko.

Hain zuzen ere, Bizkaiko 5 udalek (Galdakao, Getxo, Ermua, Basauri eta Bilbo) adierazle ekonomiko finantzarioen tresna berria jarri dute abian lehenengo fase pilotuan. Gaur EUDELen bertan egingo den mintegian, Ekialdeko herrialdeetako ordezkariak zuzenean ezagutu ahal izango dute udal horien esperientzia, proiektuko udal-arduradunek eurek emandako azalpenen bitartez.

Europako Kontseilua Euskadiko Udaletako **laguntzaile estrategikoa** da, Euskadiko udaletan eta, batez ere, **etikaren zein tokiko gobernantza onaren** arloetan proiektu eredugarriak bultzatzeko orduan. Sarritan, esperientziak eta tokiko jarduera egokiak trukatzeko dira bi erakundeen arteko lan-mintegien bitartez. Horri esker, Euskadiko udalen eta Europako auzokideen arteko harremanak sendotzen dira etengabe.

